

KAPITALAREN MINTEGIA

1. SAIOA

LEHENENGO ATALA¹

I. KAPITULUA. MERKANTZIA

Ekoizpen modu kapitalista nagusi den gizarteetan, aberastasuna merkantzien multzo handi bat bezala aurkezten da, eta merkantzia individuala aberastasun horren funtsezko forma gisa. Merkantzien ekoizpenerako baldintza da *lanaren banaketa soziala* eta merkantzia bera lan pribatu autonomoen emaitza izatea.

Merkantzia bat, lehenengo begiratuan, giza beharrak asetzen dituen objektu gisa agertzen da. Kalitate bat du, historikoa, behar horiek asetzeko duen erabileraren arabera dena. Horretaz gain, kuantitatiboki neurgarria da, merkantzia kopuru desberdinen aurrean aurki gaitezkeelarik. Erabilerari lotutako merkantziaren ezaugarria *erabilera balioa* (valor de uso) da. Erabilera balio hori merkantziaren gorputzaren ezaugarriek baldintzatuta dago: merkantziak nolakotasun bat edo beste du ase behar duen beharraren arabera. Zentzu horretan, aberastasunaren eduki materiala da merkantzia. Merkantzia gisa kontrajartzen dira soilik desberdinak diren bi erabilera balio.

Merkantziaren gorputza *truke balioaren* (valor de cambio) eramaile da, era berean. Erabilera balio gisa, merkantziek desberdintasun kualitatiboa dute. Truke balio gisa, ordea, kuantitatiboa. Truke balioa, hasiera batetan, erlazio kuantitatibo erlatibo gisa aurkezten da, beste merkantzia batekiko truke harremanean adierazten dena. Sakontasun handiagoz aztertuta, ordea, merkantziak truke harreman horren adierazpen formarekiko desberdina den eduki bat duela ikusten da: truke harremanak bi merkantzia desberdinetan komuna den, eta neurri berekoa den, hirugarren gauza bat azalera du. Hirugarren gauza hori *balioa* (valor) da.

Merkantzia orotan ezaugarri bikoitza duen lana jasotzen da. Alde batetik, erabilera balioan gorputzen den *lan baliagarria* (trabajo útil) dago. Erabilera balio desberdin adina lan kalitate desberdin dago. Erabilera balioen ekoizle gisa, lan baliagarria formazio sozial guztiekiko independentea da, giza existentziaren baldintza. Bestetik, ordea, *balioaren iturri* den lana dago. Merkantzia balioa da, *giza lan abstraktuaren* (trabajo abstractamente humano) edo *giza lan desberdindu gabearen* (trabajo humano indiferenciado) emaitza den heinean. Hau da, erabilera balioaren abstrakzioa egiten badugu, merkantzia denek ezaugarri komuna dute: *kualitate berdineko* lanaren emaitza izatea. Merkantzia baten balioaren neurria merkantzia hori ekoizteko *sozialki beharrezkoa den lanaren* arabera determinatzen da. Sozialki beharrezkoa den lana, batezbesteko lan indar sozialarekin, hots, batezbesteko trebetasun eta intentsitate maila sozialarekin gauzatzen dena da. Lan hori *batezbesteko lan sinplea* (trabajo medio simple) da, hau da, gaitasun orokor sinpleetara murriztutako lana, eta herrialde zein garai kultural desberdinen arabera aldakorra. *Lan konplexua* (trabajo complejo) indartutako lan sinplea da, denbora tarte berdinean balio handiagoa sortzen duena.

Merkantzia bat ekoizteko beharrezkoa den lan denbora *lanaren ekoizpen indarrarekin* (fuerza productiva del trabajo) aldatzen da. Ekoizpen indarra faktore desberdinek determinatzen dute. Besteak beste, langileen batezbesteko trebetasunak, zientzia eta teknologiaren garapenak, ekoizpen prozesuaren koordinazio sozialak, *ekoizpen bitartekoen* (medios de producción) tamainak eta efikaziak eta baldintza naturalek. Lanaren ekoizpen indarra gero eta handiagoa izan, orduan eta lan gutxiago beharko da merkantzia bat ekoizteko, ondorioz, bere balioa txikituz. Eta alderantziz. Era berean, ekoizpen indarraren handiagotzearekin handitu egiten da denbora tarte jakin batetan

¹ Lehenengo atal honetan Karl Marx-ek *Contribución a la Crítica de la Economía Política* lanean egindako ikerketa aurkezten du, modu sintetizatuan.

ekoizten den merkantzien kopurua. Beraz, erabilera balio handiagoa, aberastasun material handiagoa. Ekoizpen indar handiagoa, erabilera balio handiagoa, produktuaren balio txikiagoa².

Balioa soilik modu *erlatiboan* adierazi daiteke, hau da, desberdina den beste merkantzia batetan. Bada, balioa *truke harremanean* edo *truke balioan* (valor de cambio) azaleratzen da, hots, merkantzia desberdinen arteko erlazio sozialean. Truke balioa *balioaren forma* (forma del valor) da, beraz.

A) *Balioaren forma sinplea* edo *singularra* (A merkantziaren x kopuru = B merkantziaren y kopuru). Balio berdineko eta erabilera balio desberdineko bi merkantziaren arteko truke-erlazioa. Balioaren adierazpen honen bi poloak *balioaren forma erlatiboa* (forma relativa del valor) eta *baliokidearen forma* (forma de equivalente) dira. Balioaren forma erlatiboan aurkitzen da bere balioa beste merkantzian adierazten duena (A merkantzia). Baliokidearen forman, ordea, beste merkantzia baten balioa bere gorputzean adierazten duena (B merkantzia). Merkantzia berdina ezin da, balioaren adierazpen berdinean, une berean bi formetan aurkeztu.

Balioaren forma erlatiboan aurkitzen den merkantzia kantitate zehatz batetan aurkeztzen da beti. Forma horrek, beraz, kuantitatiboki determinatutako *balio magnitudea* adierazi behar du: 20 ehun makil = jaka 1. Ehuna ekoizteko denbora bikoizten bada, 20 ehun makil = 2 jaka. Erdira txikitzen bada, 20 ehun makil = jaka $\frac{1}{2}$. Gauza bera jakarekin. Merkantzia bien ekoizpen denbora zentzu eta neurri berdinean aldatzen bada, 20 ehun makil = jaka 1 espresioa mantentzen da. Zentzu eta neurri desberdinean aldatzen bada, ordea, adierazpen desberdinak agertuko dira. Beraz, balioaren neurrian ematen diren aldaketak ez dira bere adierazpen erlatiboan modu zehatzean adierazten. Balio erlatiboa aldatu daiteke balioa aldatu gabe; balioa aldatu daiteke balio erlatiboa aldatu gabe.

Baliokidearen forma *balioaren existentzia forma* da. Hiru ezaugarri nagusi ditu: 1) *Erabilera balioa bere kontrakoa den balioaren adierazpen forma da*. A merkantziaren balioa B merkantziaren gorputzean adierazten da, hau da, *balioa erabilera balioan adierazten da*. Soilik desberdinak diren merkantzien baliokidetzaren bitartez azaleratzen da lanaren ezaugarri espezifikoa balioaren sortzaile gisa. 2) *Lan zehatza bere kontrakoa den lan abstraktuan adierazten da*. Bi merkantzia desberdin berdintzean, bi merkantzietan jasota dagoen lana berdintzen da *lan abstraktu* gisa, lan baliagarria, edo merkantzia bakoitza ekoizteko egin behar den lan zehatza, albo batera utziz. 3) *Lan pribatuak bere kontrakoa den lan sozialaren forma hartzen du*. Baliokidearen formak beste lan batekiko berdintasun forma du eta, lan pribatua izan arren, forma zuzenki soziala duen lana da, beraz.

Balioaren forma sinplea ez da nahikoa, soilik bi merkantzien arteko harremana adierazten duelako.

B) *Balioaren forma osoa* edo *zabaldua* (A merkantzia z kopuru = B merkantzia u kopuru, = C merkantzia v kopuru, = D merkantzia w kopuru, E merkantzia x kopuru, etab.) Merkantzia baten balioa beste merkantzia guztietan adierazten da, giza lan desberdinu gabearen produktu gisa azaleratuz. Merkantzia horietako bakoitzaren forma natural zehatza baliokidetzaren forma partikularra da. Honekin batera agerikoa bihurtzen da ez dela elkartrukea merkantziaren balioa erregulatzen duena, baizik eta, kontrara, merkantziaren balioaren neurria elkartruke erlazioak zehazten dituen.

Balioaren forma zabalduan merkantziaren balioaren adierazpen erlatiboa ez da osoa, baliokidearen forman dauden merkantzien zerrendak ez duelako amaierarik. Gainera, balioaren adierazpen anitz eta desberdin asko osatzen dira, bat merkantzia bakoitzeko. Hortaz, balioaren adierazpenaren forma

² Hori kapitalari orokorrean dagokionez, hau da lehenengo liburu honen aztergaiari dagokionez (el capital en general). Kapital individual zehatzei dagokionez, ordea, ekoizpen indarraren hazkuntzak, denbora tarte batetan ekoizten den balioaren hazkuntza ekar diezaioke batezbestekoak baino ekoizpen indar handiagoak erabiltzen dituen kapital batentzat. Hori aztertzen du Rolando Astaritak *Monopolio, imperialismo e intercambio desigual* liburuan.

bateratuaren gabezia dago. Merkantzia baten balioaren adierazpen anitzari buelta emanda, balioaren forma orokorra lortzen da.

c) *Balioaren forma orokorra*. Merkantzia guztiek merkantzia bakarrean eta berdinean adierazten dute euren balioa, modu sinplean eta bateratuan. Modu horretan, merkantzia guztien arteko *balio erlazioa* edota *balioaren objektibitatea* zehazten da, elkarren ondoan truke balio gisa aurkeztuz. Merkantzia batekiko berdintasunez, merkantzia guztiak kualitatiboki berdinak, balio gisa orokorrean, eta kuantitatiboki alderagarriak dira. Balioaren forma orokorra modu eraginkorrean ematen da lanaren produktu bat beste merkantzia anitzekin *modu jarraian* eta *ohikoan*, eta ez salbuespenez, elkar trukutzen denean. Merkantzien munduaren lan komunaren emaitza da balioaren forma orokorra. Izan ere, merkantzia batek *balioaren adierazpen orokor* gisa funtzionatzen du solik gainontzeko merkantzia guztiek, une berean, euren balioa baliokide berdinean adierazten dutelako. Baliokide orokor hori giza lanaren krisalida sozial orokorraren adierazpen ikusgaia da.

Merkantzia batek beste guztiekiko *trukagarritasun-forma* (forma de intercambiabilidad) du soilik beste guztiek ez dutelako forma hori. Zentzu horretan, balioaren forma erlatibo zabaldua baliokide orokorraren forma erlatibo eta propio gisa aurkezten da. Edozein merkantziak har lezake baliokide orokorraren forma, baina soilik funtzio hori merkantzia mota zehatz batzuetara definitiboki lotzen denean lortzen du *balioaren forma bateratuak* sendotasun objektiboa. Une horretan, baliokidearen forma orokorrera lotzen den merkantziak *diru* gisa funtzionatzen du, edo *diru-merkantzia* (mercancía dinero) bilakatzen da. Historikoki funtzio hori bete duena *urrea* izan da.

d) *Diru-forma*. Balioaren forma orokorrarekiko ez dago aldaketa esentzialik. Merkantzia guztiek balioa urrean adierazten dute, hau da, baliokide orokorraren forma behin betiko lotu da, ohitura sozialaren ondorioz, urrea merkantziaren *forma natural espezifikoarekin*. Behin diru-merkantzian bilakatuta, balioaren forma orokorra *diru-forma* (forma dinero) bilakatzen da. Merkantzia baten balioaren adierazpen erlatibo sinplea, diru-merkantzia gisa funtzionatzen duen merkantzian, *prezio-forma* (forma de precio) da. Beraz, merkantziaren forma sinplea diru-formaren ernamuina da.

Merkantziaren izaera objektibo horrek, balioaren objektibitateak edota formak, merkantzien munduaren izaera *fetixista* azaleratzen du. Merkantziaren izaera *mistikoak* ez du bere oinarria erabilera balioan aurkitzen. Ezta ere *balioaren determinazioen* edukian, hots, lan denboran. Izaera enigmatikoa *merkantzia-formatik* sortzen da. Forma horrek gizakiari bere lanaren izaera soziala lanaren produktuei datzekien *izaera objektibo* gisa, produktu horien *ezaugarri sozial natural* gisa, aurkezten dio. Era berean, ekoizleen eta lan globalaren arteko erlazio soziala ekoizleekiko independentea den objektuen arteko erlazio sozial gisa agertzen da. Izan ere, lan pribatua soilik bilakatzen da lan sozialaren parte, eta soilik ase dezake behar sozial bat, trukearen bitartez.

Lan desberdinen arteko berdintasuna haien arteko desberdintasun errearen *abstrakzioan* datza, hots, giza lan indarrera edota lan abstraktura murriztean. Bada, ekoizleek, haien produktu heterogeneoak truke prozesuan alderatzean haien lan anitzak giza lan gisa parekatzen dituzte, ez dakiten arren. Lanaren produktuek aurkezten duten balio izaera indartu egiten da praktikan *balio magnitude* gisa egikaritzen direnean. Magnitude horiek etengabe aldatzen dira, trukatzailen borondate, aurreikuspen eta ekintzekiko modu independentean. Hauen mugimendu sozialak trukatzailentzat gauzen mugimendu gisa aurkezten da, eta gauza horien menpe agertzen dira, berauek horiek menperatu beharrean.

Merkantzien munduaren mistizismo hau erabat desagertzen da bestelako ekoizpen moduak aztertzen direnean. 1) Irla batetan *bakarrik* bizi den batek lan desberdinak burutzen ditu eta lan bakoitzerako behar duen denbora neurtzen du. Hau, lan denbora, balioaren determinazio esentziala da. Ez da, ordea mistizismorik, ez baita ematen balioaren formaren espezifikotasuna, hots, merkantzien elkartrukea. Kontrara, ekoizlearen eta haren produktuen arteko erlazio sinplean aurrean aurkitzen gara. 2) Erdi Aroan *menpekotasuneko erlazio pertsonalek* osatzen zuten oinarri

soziala. Ondorioz, lanek eta produktuek ez dute haien errealtatearekiko desberdina den forma *fantastikoa* bereganatu behar. Izan ere, mekanismo sozialean zerbitzu zuzenak eta gauzetan egindako prestazioak ziren oinarria. Lan bakoitzaren *partikularitatea* zen nagusi, eta ez, merkantzien elkartrukean bezala, lan horren *orokortasuna*. Era berean, menpekotasuneko prestazio horiek denboran neurtzen ziren, baina ez da mistizismorik, jopu bakoitzak jakin baitzekien bere lan indarra jauntxoaren zerbitzura gastatzen ari zela denbora osoan zehar. Bada, lan eremuko erlazioak erlazio pertsonal gisa ematen ziren, eta ez gauzen arteko erlazio gisa. 3) Familiaren baitan egindako *lan kolektiboan* lanaren banaketa edota langile bakoitzak egin beharreko lan indibiduala familiaren lan indar kolektiboaren organoak dira. Lan denborak neurtzen dira, baina ez da merkantzien elkartrukerik. 4) *Ekoizpen bitarteko kolektiboekin* lan egiten duten eta lan indar anitzak *kontzienteki* lan indar sozial bat bezala erabiltzen duten *gizaki askeen elkartean* ere aurreko determinazioak agertzen dira, baina modu *sozialean*. Elkartearen produktua produktu soziala da. Lan denborak paper bikoitza beteko du: alde batetik, lan sozialaren parte diren lan desberdinen arteko *proporzioa* zehaztuko du, funtzio eta behar sozialen arabera; bestetik, ekoizle bakoitzak produktu horretan duen *parte hartzea* zehaztuko du. Beraz, ekoizleen eta haien lan zein produktuen arteko erlazio sozialak sinpleak dira, bai ekoizpenean nola banaketan ere. Ekoizpen prozesu materialak bere belo mistikoa galduko du soilik modu askean elkartutako gizakiek euren kontrol planifikatu eta kontzientearen mendeko egiten badute.

II. KAPITULUA. TRUKE PROZESUA

Merkantziak ezin dira merkatura bakarrik joan ezta euren artean trukatu, haien jabe pribatuak gauzatzen du prozesu hori. Jabeek *kontratu forma* duen *erlazio juridikoa* onartzen diote elkarri, eta erlazio horren edukia *erlazio ekonomikoak* jartzen du. Bada, pertsona horiek erlazio ekonomikoen *personifikazioak* dira eta merkantziaren ordezkari gisa existitzen dira bata bestearentzat. Jabearentzat merkantziak ez du inongo erabilera baliorik, truke balioaren eramaile da soilik: horregatik eramaten du merkatura. Bere merkantziak beste batzuentzat du erabilera balioa, hau da, balio gisa *gauzatu* behar da erabilera balio gisa gauzatu aurretik. Horregatik ere, balio gisa gauzatu aurretik erabilera balio gisa *egiaztatu* behar da merkantzia hori. Izan ere, merkantziak balioa du soilik bera ekoizten inbertitutako giza lana beste batzuentzat baliagarria den forman gauzatzen bada.

Trukearen hedatze eta sakontze historikoak merkantziaren baitan latente dagoen erabilera balioa eta balioaren arteko *antitesia* garatzen du. Berehalako beharrak asetzera bideratutako gauzen erabilera eta gauza horien trukerako erabileraren artean banaketa ematen denean, *erabilera balioa truke baliotik banatzen* da. Trukea gauzatu ahal izateko, erabilera balioa eta truke balioaren arteko antitesi horri kanpo adierazpena emateko beharrak *balioaren forma autonomoaren* sorreraren alde bultzatzen du, merkantzia eta diruan banatuz merkantzia bera. Dirua truke prozesuaren ezinbesteko produktua da, beraz.

Diruaren balioa bera ekoizteko beharrezkoa den lan denborak determinatzen du eta erlatiboki adierazten da, balio berdina duten gainontzeko merkantzien kantitatean. Merkantzia guztiek ez dute haien balioa merkantzia bakar batetan adierazten bera dirua delako, baizik eta, kontrara, merkantzia bat diru bilakatzen da beste merkantzia guztiek bere gorputzean adierazten dituztelako euren balioak. Modu honetan argitu egiten da *diruaren fetitxea*, zeina merkantziaren fetitxeak ezkutatzen duen enigma baino ez den.

III. KAPITULUA. DIRUA, EDO MERKANTZIEN ZIRKULAZIOA

1) BALIOEN NEURRIA. Diru-merkantziaren lehenengo funtzioa merkantzien munduari bere balioaren adierazpenerako materiala eskaintzea da, hau da, balioak izendapen berdina duten, kualitatiboki berdinak diren eta kuantitatiboki alderagarriak diren magnitude gisa ordezkatzeta. *Balioen neurri orokorra da dirua*.

Merkantzia baten balioaren adierazpenak, diru-merkantzian, bere *diru-forma* edo *prezioa* osatzen du. Modu horretan, balioaren neurri izatearen funtzioan, diruak diru *pentsatu* edo *ideal* gisa funtzionatzen du. Hala ere, nahiz eta funtzio horretan diru ideala besterik ez erabili, prezioa *diru-material* errealearen balioaren menpekoa da, erabat. Horrela, diru gisa funtzionatzen duen materiala bat edo beste izan, prezioaren adierazpena desberdina izango da. Gauza bera gertatzen da diruaren balioa edo merkantziaren balioa aldatzen badira.

Diru-merkantziak *neurri-patroi* (patrón de medida) edo *prezio-patroi* (patrón de precios) gisa funtzionatzen du bere kantitate *finko* bat prezio gisa ezartzen denean. Prezio-patroi moduan erabili izan dira pisu metaliko zehatzak, libra kasu. Hauetan balio erlazio oro desagertzen da. Izan ere, diru-merkantziaren kantitate zehatz bati erreferentzia egiten dioten arren, kantitate hori ezkutuan geratzen da prezio-patroiaren forman: diru merkantzian balio aldaketa ematen bada ere, eta horrekin batera prezio-patroiaren *balio-ikurretako* (símbolo de valor) bakoitzean, ez da aldatzen, ordea, prezio-patroia bera, metal kantitate desberdinek balio erlazio berdinean jarraitzen dutelarik.

Prezio-forman inkongruentzia kuantitatiboa eman daiteke balioaren neurria eta prezioaren artean. Hori ez da, ordea, forma horren akats bat. Kontrara, inkongruentzia horren bitartez moldatzen da ekoizpen modua batezbesteko lege gisa soilik gailendu daitekeen araura. Inkongruentzia kuantitatibo horrez gain, ordea, kuantitatiboa ere eman daiteke: baliorik ez duten gauzek prezioa izatea.

Prezio-forman merkantziak diruagatik trukatzeko *aukera* eta truke horren *beharra* inplizituak dira. Balioen neurrian ezkutaturik agertzen da diru fisikoa.

2) ZIRKULAZIO-BITARTEKOA. Truke prozesuak merkantziak esku batzuetatik besteetara mugitzen dituen neurrian, metabolismo sozial baten aurrean aurkitzen gara. Merkantziaren truke prozesua kontrajarriak diren bi *metamorfosiren* bitartez gauzatzen da: merkantziaren transformazioa diruan eta bere bilakaera dirutik merkantziara: M-D-M.

M-D lehenengo metamorfosia da, edo *salmenta*. D-M, berriz, bigarren metamorfosia da, edo *erosketa*. D-M, une berean, M-D da. Hau da, merkantzia baten azkeneko metamorfosia (D-M) beste merkantzia baten lehenengo metamorfosia da (M-D). Merkantzia baten metamorfosi osoak hiru pertsona eskatzen ditu. Merkantziaren jabeak diruaren jabea du aurrean. Ondoren, merkantzia saldu ondoren, merkantzien jabe den hirugarren pertsona baten aurrean aurkitzen da, erosle moduan. Mugimendu honen bi faseek, hau da, salmentak eta erosketak, *ziklo* bat osatzen dute. Era berean, merkantzia baten zikloa osatzen duten bi faseek beste bi merkantzien metamorfosi partzial eta kontrakoak osatzen dituzte. Merkantzia bakoitzaren zikloa, bada, beste merkantzien zikloekin nahasten da. Prozesua, bere osotasunean, *merkataritza-zirkulazio* (circulación mercantil) gisa aurkezten da.

Merkataritza-zirkulazioa *formalki* eta *esentzialki* desberdina da produktuen elkartruke zuzenarekiko. Izan ere, erosketan edo salmentan agertzen diren bi pertsonak ez dituzte euren merkantziak elkar trukatzeko. Gainera, merkataritza-zirkulazioak produktu baten salmenta eta beste baten erosketa denboran banandu egiten ditu: saldu izanagatik ez dago inor behartuta berehala erostera. Zentzu horretan, zirkulazio prozesua ez da agortzen, elkartruke zuzenean bezala, erabilera balioen lekualdatzearekin. Dirua ez da desagertzen merkantzia baten metamorfosi prozesutik kanpo geratu arren. Merkantziek hutsik utzitako puntuak betetzen ditu diruak.

Merkantzien zirkulazioan diruak zirkulazio-bitartekoaren funtzioa betetzen du. Hau da, diruak merkantziak zirkulazioan jartzen ditu. Funtzio hori betetzen du merkantzien balioa delako, autonomo bilakatuta. Horregatik, merkantzien zirkulazioa diruaren mugimenduaren emaitza gisa agertzen bada ere, errealtatean diruaren mugimendua merkantzien mugimendu formala baino ez da.

Merkantziak, bere lehenengo metamorfosia gauzatzean, zirkulaziotik kanporatuak dira. Dirua, ordea, zirkulazio bitarteko gisa, ez da inoiz zirkulaziotik kanpo geratzen. Zirkulazioa gauzatu ahal izateko beharrezkoa den diru kantitatea (K) zirkulatzeko duten merkantzien prezioa (P) eta diru-pieza bakoitzak burutzen duen ibilbide kopuruaren (X) arabera da (*diruaren abiaduraren* arabera), betiere diruaren balioa emanda dagoela ($P : X = K$). Merkantzien prezio txikiago batekin, diru gutxiago beharko da, eta alderantziz. Gauza bera diruaren abiadurari dagokionez: handitu egiten bada, hau da, diru-pieza bakoitzak ibilbide gehiago egiten baditu, diru gutxiago beharko da, eta alderantziz. Diruaren abiadura merkantzien forma aldaketaren abiadura agerian jartzen da.

Diruaren zirkulazio-bitarteko funtziotik sortzen da *moneta*, hau da, prezioen patroiaren neurri berean fisikoki zirkulatzeko duen diru-merkantziaren pieza. Denborarekin, ordea, monetak higatzen dira eta gero eta gehiago desberdintzen dira ordezkatzeko duten diru-merkantziaren sustantziatik. Horrela, monetaren titulua eta bere edukia arteko banaketa prozesua hasten da: diru-merkantzia zirkulazio-bitarteko gisa eta diru-merkantzia prezioen patroi gisa desberdintzen dira, merkantzien benetako balioak izateari utziz. Honek, diruaren existentzia metalikoa *sinboloengatik* edo beste material batzuetan egindako *taiengatik* aldatzeko aukera irekitzen du. Horrela sortzen da diru-merkantziaren (kasu honetan, urrearen) kantitate zehatzak ordezkatzeko dituen *paper moneta*. Honek diruaren *zeinu* gisa funtzionatzen du. Izan ere, zirkulazio-bitarteko gisa, diruaren agerpena eta desagertzea oso azkarra da, eta horregatik nahikoa da diruaren existentzia *sinbolikoarekin* funtzio hori betetzeko.

3) DIRUA. Balioaren neurri gisa eta zirkulazio-bitarteko gisa funtzionatzen duen merkantzia da dirua. Dirua a) *pilatu* edo *gorde* daiteke (atesoramiento), b) *ordainketa-bitarteko* gisa aritu daiteke (medio de pago) eta c) *mundu mailako diru* gisa funtzionatu dezake (dinero mundial).

a) Diruaren pilaketa ematen da metamorfosia eteten denean, hau da, salmentaren ostean erosketa gauzatzen ez denean. Ez da saltzen erosteko, baizik eta merkantzia diruagatik trukatzeko. Bitarteko izateak, dirua helburu izatera igarotzen da, eta diru-nahia handitzen da. Izan ere, merkataritza-zirkulazioa hedatu ahala, diruaren *boterea* handitu egiten da, dena bihurtzen baita eskuragarri; baita dirua ere, botere *soziala* botere *pribatu* bilakatuz.

b) Diruak ordainketa-bitarteko gisa funtzionatzen du merkantziaren salmenta eta bere prezioaren gauzatzea edo ordainketa denboran banatzen direnean. Saltzailea *hartzekodun* bilakatzen da eta eroslea *zordun*. Funtzio honetatik sortzen da *kreditu-dirua*. Jada ez dira merkantzia eta dirua une berean agertzen. Diruak, balioaren neurri gisa, erosketa bitarteko *ideal* gisa funtzionatzen du. Ordainketa epea bukatzean solik zirkulatzeko du eta, beraz, prozesuaren bitartekari izateari uzten dio, hari truke balioaren existentzia autonomo gisa *amaiera* emateko. Bada, prozesu horren amaieran, diruak merkantzien prezioak gauzatzen ditu. Ordainketa-bitarteko gisa zirkulatzeko duen diru kantitatea, epe batetan gauzatu beharreko merkantzien prezioen eta diru horren abiaduraren arabera da. Epe batetan ordainketa-bitarteko gisa eta zirkulazio-bitarteko gisa zirkulatzeko duen diru kantitatea, ordea, gauzatu beharreko merkantzien prezioen eta epea betetako ordainketen emaitzari elkar konpentsatzeko duten ordainketak eta diru-pieza berdinak gauzatutako ibilbideak kentzearen emaitza da.

c) Barne zirkulazioaren eremutik irteten denean, diru-merkantziak, urreak, bere forma *lokalak* galtzen ditu *-prezio-patroia, moneta eta balio-zeinua-*, eta metal preziatuen forma originala eskuratzen du: *lingoteen forma*. Soilik *mundu mailako merkantzia* hartzen du diruak forma hori. *Ordainketa-bitarteko orokorra, erosketa-bitarteko orokorra eta aberastasunaren zehaztapen material* izatea dira bere funtzioak. Ordainketa-bitartekoa nagusi da, balantze internazionalen konpentsaziorako. Erosketa-bitarteko gisa funtzionatzen du nazioen arteko oreka hausten denean. Azkenik, aberastasunaren zehaztapen material gisa aritzen da herrialde batetik bestera aberastasunaren transferentzia merkantziaren forman egin ezin denean.